



ZERGA-POLITIKA KORPORATIBOA / POLÍTICA FISCAL CORPORATIVA



Euskaltel da Espainiako estatuaren iparraldeko telekomunikazio-talde nagusia, eta xede hau du: pertsonen komunikazio-beharrei modu integrarean erantzutea eta enpresei ahalik eta produktibitate handiena izaten laguntzea, horretarako komunikatzeko eta informazioa kudeatzeko tresnak eskainiz eta, hartara, gure gizartearen garapen ekonomikoa eta soziala bultzatuz.

Gobernu korporatibo egokirako jardueren esparruan, Euskaltel Taldearen Administrazio Kontseiluak zerga-politika korporatibo hau onetsi du, Taldearen konpromisoa baita zerga-jardunbide egokiak bultzatzea eta interes sozialaren alde egitea, negozio-erabakiak gauzatzean zergen inguruko arriskuak eta eraginkortasunik ezak saihestuz.

Euskaltel Taldeak printzipio hauek hartuko ditu oinarri zerga-administrazioekiko harremanetan: gardentasuna eta konfiantza, eta fede ona eta leialtasuna.

Printzipio horien arabera, Euskaltel Taldeak zerga-jardunbide egoki hauek definitu ditu, halakotzat harturik zerga-arriskuak gutxitzera eta halako arriskuak ekar ditzaketen jokoerak prebenitzera bideratuta daudenak.

- Zerga-arauak betetzea Taldeak diharduen lurralde guztietan.
- Arrazoizko interpretazio batean eta aplikatzekoa den araudian oinarriturik hartzea zerga-gaietako erabakiak.
- Taldeak diharduen lurraldeetan ezartzen diren zerga-jardunbide egokien kodeei jarraitzea.
- Egitura opakurik ez erabiltzea zergekin loturiko xedez, eta ez eratzeta edo zuzenean erostea paradisu fiskalen batean kokatutako sozietaterik.
- Arrisku fiskalak identifikatzea eta leuntzea.
- Zerga-agintariekiko harremanetan irizpide hauek bultzatzea: hurbiltasuna, konfiantza, fede ona, profesionaltasuna, lankidetzeta, leialtasuna eta elkarrekikotasuna.
- Zerga-administrazio eskudunekin lankidetzan aritzea iruzur fiskalak atzemateko eta soluzioak aurkitzeko, Taldeak halakoan berri izaten badu presente dagoen merkatuetan.
- Informazioa eta dokumentazioa eskaintzea zerga-administrazioek eskatzen dutenean zerga-gaietan garrantzitsuak diren gaiei buruz, ahalik eta eperik laburrenean eta behar den neurrian eskaini ere.
- Administrazio Kontseiluari eta Ikuskaritza eta Kontrol Batzordeari informazioa ematea Taldeak aplikatutako politika fiskalei buruz, eta, bereziki eta zuzenean, Urteko Kontuak idatzi eta sozietateen zergaren aitorpena aurkeztu aurretik. Aurrekoa eragotzi gabe, Taldearen Administrazio Kontseiluak onetsi beharrekoak diren eragiketa edo gaien kasuan, hari eman beharko zaio ondorio fiskalen berri, faktore garrantzitsu gertatzen direnean.

Euskaltel Taldeak behar diren kontrol-mekanismoak ezarriko ditu, hala giza alderditik nola alde materialetik, egokiak eta espezializatuak, zerga-araudia eta aurreko printzipioak bete daitezzen zainzeko.

Euskaltelen Administrazio Kontseiluak ahalegina egingo du printzipio horiek eta jardunbide egoki horien jarraipena egin dezaten taldean integraturik dauden eta zerga-alorrean eragina duten jardueretan ari diren sozietate guztiek.

Sozietateak gobernu korporatiboari buruz egiten duen urteko txostenean islatuko da benetan zer neurritan betetzen den zerga-politika korporatibo hau.

Euskaltel es el Grupo de Telecomunicaciones líder en el Norte del Estado que tiene como misión responder de manera integral a las necesidades de comunicación de las personas y ayudar a la mayor productividad de las empresas, facilitándoles herramientas de comunicación y gestión de la información, contribuyendo al desarrollo económico y social de la Comunidad en la que opera.

En el ámbito de desarrollo de las actuaciones de Buen Gobierno Corporativo, el Consejo de Administración del Grupo Euskaltel ha aprobado la presente Política Fiscal Corporativa con el compromiso del Grupo de impulsar la aplicación de buenas prácticas fiscales y favorecer la consecución del interés social evitando riesgos e ineficiencias fiscales en la ejecución de las decisiones de negocio.

El Grupo Euskaltel basará sus relaciones con las Administraciones Tributarias respectivas en los principios tanto de transparencia y confianza como de buena fe y lealtad.

De acuerdo con estos principios el Grupo Euskaltel ha definido las siguientes buenas prácticas tributarias, entendiéndose por tales, aquellas que conducen a la reducción de riesgos fiscales significativos y a la prevención de las conductas susceptibles de generarlos:

- Cumplir las normas tributarias en los distintos territorios en los que opera el Grupo.
- Adoptar decisiones en materia tributaria sobre la base de una interpretación razonable y según la normativa aplicable.
- Seguir los códigos de buenas prácticas tributarias que se implementen en los territorios donde opere el Grupo.
- Evitar la utilización de estructuras de carácter opaco con finalidades tributarias y no constituir ni adquirir directamente sociedades residentes en paraísos fiscales.
- Identificar y mitigar los riesgos fiscales significativos.
- Potenciar una relación cercana, de confianza, buena fe, profesionalidad, colaboración, lealtad y reciprocidad hacia las autoridades tributarias.
- Colaborar con las administraciones tributarias competentes en la detección y búsqueda de soluciones respecto de las prácticas fiscales fraudulentas de las que el Grupo tenga conocimiento y que puedan desarrollarse en los mercados en los que está presente.
- Facilitar la información y documentación con trascendencia fiscal que soliciten las administraciones tributarias, en el menor plazo posible y con el alcance debido.
- Informar al Consejo de Administración y a la Comisión de Auditoría y Control de las políticas fiscales aplicadas por el Grupo y, de forma específica y directa, antes de formular las Cuentas Anuales y presentar la declaración del Impuesto de Sociedades. Sin perjuicio de lo anterior, en caso de operaciones o asuntos que deban someterse a la aprobación del Consejo de Administración del Grupo, se informará al mismo de las consecuencias fiscales cuando constituyan un factor relevante.

El Grupo Euskaltel adoptará los mecanismos de control necesarios, tanto humanos como materiales, adecuados y especializados, para velar por el cumplimiento de la normativa tributaria y de los principios anteriores.

El Consejo de Administración del Grupo Euskaltel, impulsará el seguimiento de estos principios y buenas prácticas tributarias por parte de todas las sociedades integradas en el Grupo cuyas actividades tenga trascendencia en el ámbito tributario.

En el Informe anual de gobierno corporativo de la Sociedad se reflejará el grado de cumplimiento efectivo de esta política fiscal corporativa.

Alberto García Erauzkin
Presidentea - Presidente

Derion, 2017ko maiatzean

Derio, mayo de 2017